Alkartasun-mugak

Zoritxaŕa, eŕi-txearen biotzean, Eleizaganako goŕotoa ereitea, egin beaŕ nagusi duten gizon aŕukarten zoria. Gaistakeria, aberekeria dute pizkoŕzale. Geyenak, atzo, Eleiz-baŕutian bizi ziran. Eleiz agindupean. Eŕukaŕiok ordea, maldan bera airoso joan oi-baita, gaiztakeriz, lizunkeri goŕiari lotu zitzaizkion. Ain sendo lotu, gauŕ, lizunkeria dute Jaungoiko. Jaungoiko bakaŕ. Lizunkeriari jaŕai zatzaizkie osoro.

Lizunkeriari lotzeak uŕutiratu erazi zitun Eleiz baŕutitik, Aita Gokoaren altzo eŕukitzutik. Eleizak, apaltasuna, okeŕ-egiñen damua bai zezkayen. ¿Apaltasuna? ¿Apaltasuna gizon lizunduari? Eta aŕokeriak biotza gañeturik, deadaŕ bizika zesaten: "Ez guri mintzo Jaungoikoa'z, Jaungoiko lau bosten ustekeria besterik ez da-ta. Atsegiña cegu Jaungoiko. Atsegiñari bakaŕik belaunikatuko gatzaizkio. Aŕen ez guri mintzo Jaungoikoa'z."

Eta Jaungoikoa'ganako goŕotoak eragiñik; gaiztakeriak marduldutako berekoikeriak aizemanik, landako pakea eten dute. Apaltasuna zeskayen Eleizaganako goŕotoa aldarikatse bide, landako pakea deadaŕ bildurgaŕiak eten du. "Ez guri mintzo Jaungoikoa'z!"

Landako pakea etetzea gutxi iritzi ordea, eraganatu dira. Bere naiga beaz, bere miñaz, bere umetxoen goseaz, mintzo bai zatzaizkie, eŕiak beso-zabalik aŕtu ditu. Langile gosea, Eleiza bide dalakoa ziñistarazi diote. Gosez dagonari, eŕez saŕtzen bai zayo ziria. Jaungoiko'rik ez dalakoa jaulki dute. Eta azi madarikatua loratuz gero, eŕiak deadaŕ dagi: "Ez guri mintzo Jungoikoa'z."

Zoritxaŕa, eŕia, Jaungoikoa'rengancik uŕutiratu dutenen zoria. Zoritxaŕa, eŕiari, "ez guri mintzo Jaungoikoa'z" jaulki erazi dienen zoria.

¿"Ez guri mintzo Jaungoikoa'z" oŕek, zoriona ekaŕi ote ordea eŕiari? Itzuli begiak España'runtz. ¿Zer dakusgu? Guda aztaŕena. Eŕiaren odol egaŕia.

Lenbizi, Jaungoikoa'ganako goŕotoa soŕtu zitzayonean, atsegin ustel nayak zerabilkin erotze zorin. Aberatzen diru oudatzeak ziraŕa zeragion. Eŕiak ere, atsegin lizuna nai zun. Deadaŕka ari zan: "¿Aberts gutxi oyek, zergatik atsegiñean igari, eta guk, ogi puska opa ezin gure buruari?" Eta begira gauŕ. Guda-aztaŕenak aizea pozoitu du. Eŕiaren oŕua dentzagu. Oŕu ikaragaŕia. Guda geŕtuketak darabilki. Aberatsen atsegiña nai du... Gutxien uste danean, guda sutu da. Eŕia alde batetik, aberatsak ordaindutako gudariak bestetik, ¿nork graitza iritxiko ote? ¡¡Eŕiak!! Asko baitira. Eta ordun... odol ibayak dakuskidat nunai. Eŕeketak. Bilduŕgaŕizko eriotzak...

¿Zenbat izkuztuzko izugaŕikeri gordetzen ote ere baŕenean eŕi-garaitza oŕek?

Ona Jaungoiko ziñesterik ezaren ordaña: Guda, guzia dezaketen banakak batetik. Ogi puzka airatu ezin dezaketen gizon emakume eta auŕtxo gosetiak bestetik. Zoritxaŕa, eŕia ontaratu dutenen zoria.

España'ko eŕi odolzalearen oŕuak, noizpeinka, euzkotaŕoi arpegia zipriztindutzen digute. Ango, "ez guri mintzo Jaungoikoa'z" birau nazkagaŕiaren oyaŕtzuna, aldika-aldika, entzukietaratzen zigu. ¿España'ko bazteŕ orotan, egozten ari dan langile ta nagusi aŕteko gudak, gure eŕia, Euzkadi, Euzkal-eŕia, bere sabelean yerintziko ote?

¡Irakuŕle! Euzkotaŕok erantzuna eman beaŕ diogun galdera, auxe.

Mendi bat su-gaŕetan kixkaltzen aŕkitzen danean, zer egin oi dute auzotako sail-jabeak? Mendi-azala eten, zulatu euren sail-muga ondotan, sua esitutzeko. Auzko salak benik eŕetzeke iraun dezaten. ¿Zer esango zenduke, irakuŕle, auzo-sail jabeak alkaŕtu, ta ur-txaŕoz sua itzali nairik asiko balira? ¡...!

Irudi au auŕez-auŕe degula diot orain. ¿Zer egin beaŕ degu euzkotaŕok kixkal-zorian aŕkitzen dan España'ko suak Euzkadi menderatu ez dezan? Eten salak, aten eŕi-bugak. Gure eŕia au al degun geyena berezi. Gure sala, gure Euzkadi esitu.

Asmo au txaŕtzat eman, eta españaŕ-eskuikoen batasuna guri eskatzen dabiltzanen irudia beŕiz ona: Ur-txaŕoak aŕtu eta suzko-mendi izugaŕiak itzaldu nai lituztekenen asmo iñozu tentela.

Euzkadi gaizkatu nai badegu, garbi-garbi dakusgu bide bakaŕa: abeŕtzaletasun garbi eta osoa.

Gurea gaizkatzen badegu, gure eŕia eŕetzeke zaitzen badegu, eta auzo-eŕian sua itzaliko danean, ordun ekingo diogu eŕeketak an egin ditun kalteak ordaintze bide, lagun urkoari laguntzeari. Kristau eta biotz onekai dagokien lez.

Beinbitaŕtean, euzkotaŕok, aŕtu atxuŕak eta Ebro aldean luŕa eten, zulatu, mugak bereiztu.

UZTUŔE

Bona'tik Port Talbot'era

I. Bona'tik burdin-oŕa ontzikada osua aŕtuta Port Talbot'erako, urten gara itxasorantz. Nasaikatu ta gerotxubago ipinten dogu ontze-auŕia sartalderantz. Axe baketsuba dago baña ipaŕetik datozan uñak erasoten dautse ontzijari sarilako kulunkada aundijak. Zubi-ganian gabiltzanok alde batetik bestera, iroiren baten jasoten gara aldatzak daukozan gora-bera bijetatik. Ontxe gagoz ezin igon aldatza gorputzak auŕerantz ipiñizik ta beriala geratu biaŕ gara atzerantz ipiñita, ta olan eta gusti be geuk gura barik aŕapaladea artzen dogu alde baterantz. Geldituten ba gara oñaŕi on bat eukiteko ankak ondo zabaltzen doguz.

Lemazaña ariñeketan ikusten dogu bere tokitik urtenda, ez lotuteko eskumaldeko olak jo-arte. Eskeŕak burubagaz eztautsona emon, ostantzian olak edo buruba (ziuŕen askenengua) uŕutuko eban. ¿Zer jazo da mutil? Eztautzo erantzun gura itaunari ta buruba makurturik dua beren tokira, baña eŕez dago igaŕten kulunkada batek erdi-lo edo ardurage aŕapau ta emontsola aŕapaladeau.

II. Kulunkadak amaŕu-barik, axia, baketsu egon dana orain-arte astero da putska sorkaldetik, leunki asieran, baña goruago indartsuago datoŕ. Gabeuki bat geruago uŕumada edeŕa atera ta itxasuan altzaten dauz uñak ugari. Axe ta atzetik datozan olatuan laguntasunagaz zer edo zer geyago dabilelako gure ontzija beteten da, neska iguingaŕijak, egurastuten dabiltzanian, eukiŕen daben aŕotasun, baño andijaguagaz.

Gabian indaŕ andija aŕtu dau axiak ta itxasua gogoŕagua orain, saŕi sartzen da ontzi-azalera geure ibilbidetik ezertxu aldenduten bagara. Gaba oso ilun dago ta ezin ikusi dogu itxasuak balteztuten bagaŕuz. Iluntasun onetan itxas-uñak, uste lei, andijaguak dirala, ta kontuz ibili biaŕ gara sartzen dan urak eskumalde nai eskeŕetik aŕapau barik.

Goxaldian axiak pizka bat egin dau ipaŕerantz. Saŕtu gara España'ko luŕan axepian eta emendik auŕerantz itxasua baketuten asi da bare geldituteko Gibraltaŕ'era eldu baño lenago.

III. Gaba edeŕa Gibraltaŕ'ko uretan, ortzi ixartsua, axe geldija ta itxaso bazia. Ipaŕ-aldetik Españaŕ luŕak eta egotik Apirka dogula guaz geure bidian. Iñoz baño argi geyago ikusten dogu itxasuan; batzuk aŕantzalien ixontziñuetakuak eta bestiok jaurtiŕa daukoen tramankuluenak dira. Nundik juan eztakigu argi danak dira antzekuak eta. Bijan biŕaŕtetik saŕtu gara ta arin entzuten dogu aŕantzalien didaŕak, bilduŕez euren tramankuluak uŕutu barik. Geure auŕetik utaigun eruan tertza edo ixontziñorik saŕi urteten dogu geure bidetik. Zorijonak azkenez aldendu gara onen aŕtetik ta jaŕaitzen dogu geure bidian, Sao Vicente mutuŕerantz.

IV. Azkenengo ixentau dogun mutuŕan itxiten dogu. Ipaŕ-sartaldeko ibilbidia ipaŕerantz artzeko. Bere axepetik urtenda beriala olatuak asten dira joten ontzi-auŕia ta emen eralduko zapaŕadak saŕi elduten dira gura arpegijak garbituteko asmuagaz zubirarte.

Ekaitz gogoŕa daukagu orain. Axe otz eta indartsuak uŕumada edeŕa ateraten dau ta egiŕen dauz andijagoak itxas-uñak. Saŕi onek sartzen dira ontzi azalera indaŕ andijagaz ta urez beteŕuten dauz inguru gustijak.

Ontzijonen aŕotasun gustijak juan ziran. Orain buruba makuŕturik itxiten dautso ganera etorten itxasuari ta onen indaŕak asko gitxituten dau betiko arintzea

¡Ia "Unbe-Mendi", oŕ zara ba! ¿Nun itxi dozak lengo aŕotasunak? ¡Jagi makurturik daukazun buruba ta erakutsi mustuŕak olatuari! Iñardu entzun dabela; olatu batek makuŕtuta ipiñi-aŕen arin jagiŕen dau auŕia uŕengua ez dagin sartu.

Ekaitza amatu da. Eskeŕak emon biaŕ dautsagu ontzioneri ondo betetu dabelako bere lana; ona-ixan az orainguan. Ikusiko dogu auŕerantzian be olan jazoko badok, orixe da guk biaŕ doguna-ta.

V. Poz-pozik guaz auŕera Bizkai'ko izpazteŕetik eguraldi on bategaz. Bilduŕ ixan gara oldozturik eukiko dogula emen bere ekaitza, baña lengo zoritxaŕak alde eginda, ona elduda gugana.

Gau edeŕa ta egun obia igaro doguz Seilly deritxon ugaŕte onduan epala'k emoten dausku bere atzen-aguŕa ta bidalduten dau saŕtaldeko axe gogoŕa ta itxasua. Bilduŕ andirik eztausku erazoten; arin egongo gara St. George channel'en-ta, baña bai kulunkada batzuk eragiŕen dautso ontzijari.

Ogetik aguŕtuten dogu epala beste urteraŕte, olde txaŕagaz, eta ezta aŕiztutekua olan jazotia kulunkadak eztautsoe ixiŕen gure azuŕoi biaŕ daben lez atsenduten-ta.

Itxaŕtu ta jagiŕen garanian, ikusten dogu eguraldi edeŕ bat dala gure lagun, eta ontzija edeŕto ta alaitsu dabilela itxaso-ganian.

Scarweather: Beste gabeuki erdi bat ta jaurtiten dogu ankilea, itxaroten itxasaldijari kai baŕura sartzeko, atiak igiriten dabeneko.

ITXASTAŔ.

"Gestora"-k Euzkeraren Aurrka

Gertakun Lotsagarria

Gipuzkoa-Aldundiko "Gestora" ere Bizkai'koa bezin euzkeraren etsai edo arerio ageŕtu zaigu. Batzuk eta besteak anai dira euzkerari auŕka egin biaŕ zayonian, eta gure gauzak ikutu biaŕ diŕuzten gustian auŕez eta tankera guziz lotsagaŕizkoan nabaŕmendu oi-dira itz ospinduen bidez azaldaz guretzat kuŕunenak diran gauzeri dioten goŕoto amoŕagaŕia.

Donostia'ko "Escuela Normal de Maestros,,'ek idatzi baten bidez eskatu dio Gipuzkoa'ko "Gestora,,'ri aŕen irasi dezala ikastola oŕetan euzko-ikastaroa, euzkera ezdakiten irakasliak euzkera ikasi dezaten eta dakiŕenak euzko-ikastaroak emateko gaitu diŕezen. Ikastola oŕek, gañera, edeŕki asko oaŕtu dio "Gestora,,'ri, auzo-ikastoletarako biaŕ diran irakasliak euzkera dakiŕenak izan biaŕ duten ezkero, biaŕ-biaŕeko gauza dala ikastaro ori sortzea eta beriala irazi biaŕ dala.

Guziz begi onez eta atsegin beriaz ikusi degu Gipuzkoa'ko abeŕtzaleok Irakaslien Ikastola oŕek egin dan eskari txalogaŕia, ez gauza beŕi bat dalako ori, baizik, irten duan lekutik irten dualako asmo goragaŕi oŕek; bada egia aitortu biaŕ ba'degu iñoiz ez genduan uste izango (eta gutxiago "ezkeŕ" eta "eskubi" beren "España gloriosa"-rekin erotuta dabiltzan garai ontan) abeŕtzaletasun kutsurik nabaitzen ez dan leku batetik irten biaŕ zuanik oŕelako asmo zuzen eta bidezkorik.

Oraingdan, ba, atxipetuak izan gera abeŕtzaleok; baña atxipetze au gure gauza kutunen goratasunerako izan dan ezkero, ageŕ zayogun ongi merezitako eskeŕ ona Donosti'ko "Escuela Normal de Maestros"-eri euzkera goŕotatzen duten euzko-seme txaŕei ikasbide edeŕa emanaz aŕtu duan erabaki guziz txalogaŕiagatik.

Baña... (eta asi-gera "baña"-ka!) erderazko "nuestro gozo en un pozo" gertatu da.

"Escuela Normal de Maestros,,'en eskari zuzen eta guziz bidezkoa luŕazpiratua izan da.

Ain asmo begikoa, ain erabaki eŕazolzkoa, Euzkadi biziro goŕotatzen duten euzkotaŕ deunge ta maltzuŕen eskuetan autz egin da gelditu da.

Gipuzkoa'ko "Gestora,,'k bere betiko griña txaŕa azaldu nairik gure gauzeri, gure euzkera goragaŕiari, ostikoz jo eta ostikopian zapalduta utzi du "E. N. M." ek zuzendu dion eskari goresgaŕia, eta ¡oŕa! euzkera ikasi nai-duten irakasliak ezin izango dute ase beren gogorik eta ez dute izango euzkera nun ikasirik.

¡Auxe bai gertakun lotxagaŕia, tamalgaŕia ezpalitz!

Baña, ta... ¡nola izaten diran gauzak! Lenagotik "Gestora" oŕek erabakita dauka Estatutoa'n, Euzko-Araudia'n euzkera eskatu biaŕ dala Euzkadi'ko izkuntza berezitzat. Eta orain, oŕen ondoan deus eztan eskaria, ¡uka...!

Naikua da, naikua degu ixekarik. Ba 'dakitelako eztatoŕela emen Estatuto'rik, berak eta karlista-kotzerbadore-integrista-independiente Araudi oŕen auŕka diralako, Euzko-Araudia'n ezaŕi zuten, irañez eta ixekaz, EUZKERA IZAN DEDILA EUZKADI'KO IKUNTZA BEREZIA. Eta orain, beriala egiŕeko gauza batean, ukapena eta ukapena...

Bakoitzari beria ematea bidezko dan ezkero, aiŕoŕtu dezagun Gipuzkoa'ko "Gestora" lotsagaŕiak etzuala osoan ezetsi "Escuela Normal de Maestros,,'en eskari ori, baizik, zortzi aldunen iritziz, biren auŕka. Berei, Uria eta Untzueta'ri, eman dayegun merezi duten aitapena euzkotaŕ zintzo gisara aldeztd zutelako ainbat aldiz aitatu degun eskari goragaŕia, eta beste zortzirak gogoan izan ditzagun azkatasun-orduan.

ZELETA.

Euzko-Erri-Jakintza

GALDAKANO'KO BASETXE TA MENDIJAK
GOMUZIO-AUZUA

Basetxiak

Padrol-goikoa.
Mismirutxueta.
Zelai-luzia.
Gumuzio-zaŕa.
Artola-zelaya.
Eŕikoena.
Korte-edeŕa.
Ituŕialdekoa.
Artolaoste.
Katalangana.
Olabaŕena.
Olaŕavarza.
Gumuzio.
Isasi-zaŕa.
Eŕeketa.

Erletxetagoikoa.
Bartolotxuena.
Goikoetxe.
Artolaeŕekalde.
Artola.
Zelai-luzia-tejeria.
Gumuziondo.
Erdikoetxebekoa.
Azkona-zdlueta.
Urzabaleta-nagusi.
Urzabaleta-txikeŕa.
Urinzubieta.
Mendigane-nagosia.
Mendigane-txikeŕa.

Soluak

Korte-edeŕa.
Askona-zulueta.
Ursabaleta-nagosi.
Sagargane.
Katalan-gana.
Etxebaŕi-erletxe.
Erdikoetxe-bekoa.
Zelai-luzia.
Padrola-goikoa.
Zelailuzia-tejeria.
Artola-eŕekalde.
Artola.
Bartolotxuena.
Eŕeketa.
Goikosoloa.
Bekosoloa.
Auzposoloa.
Olanagoŕi.
Kalzada-gane.
Etxeondua.
Bigaŕensolua.
Kamiñopia.
Kamiñoburu.
Saŕatu (oel).
Munazelai-etxeondua.

Nagosia.
Etxeauŕia.
Etxeostia.
Olaŕetatxueta.
Munazelaya.
Aŕiganesolo.
Artola-zelaya.
Gumuzio-zaŕa.
Eŕikoena.
Ituŕialdekoa.
Artola-eŕotaonda.
Artola-oste.
Andiko-soloak.
Zelai-luzia.
Mismirutxueta.
Etxeondokosoloa.
Ituŕiganeko-soloa.
Bideaspiko-soloa.
Lupola-aldeko-solo-goyena
Etxea auŕeko-solo baena.
Artola-aldeko-soloa.
Goikosolobaŕia.
Urinzubieta.

Mendijak

Lupolabekogana.
Lupolagoikobaŕena.
Ituŕikobasoa.
Etxeondokobaso-baŕena.
Artola-alde.
Artola-alde.
Artola-aldetxikeŕa.
Etxeauŕeko-berezie.
Goikoberezie.
Etxeauŕeko-baso.
Mismirutxueta.
San Bernabe.
Eŕietako-zelaya.
Artola-zelaya (berezi
Lupola.
Ituŕiburu.
Aristetxu.
Martolotxuena.
Bartolbauŕena.
Solobaŕena.
Artolabaso.
Asuen-zelai.

Zelai-galanta.
Gastañetako.
Ituŕialdekoa.
Olaŕeta-buru.
Aŕidiaga (lerdoi).
Kamiñoburu.
Artolaburu (lerdoi).
Urdaleta.
Aretxaŕo.
Auzpolozaga.
Etxeauŕe.
Andrakorta.
Korta-baŕi.
Lupaola.
Txinpas-mendi.
Basoko-baŕena.
Gastañeoste.
Auŕeko-zelaya.
Txarea edo Txurea.
Pixtikorta-baŕena.
Aŕendia.
Sarikomendi.
Azkona-zulueta.

EGILEOR'TAR GENAR.

ERRIJETATIK

SEGURA

BATZAŔA. — Igaro dan larunbatean egin zuten abeŕtzaleak, Segura-Buru-Batzaŕa autu eta eŕia ondo zaituko duten gizonak Udaletxe edo Ayuntamentura eramateko erabakiak aŕtzeko.

Ozte edo jende asko bildu zan eta iritzi batez orain aŕteko Segura-Buru-Batzaŕa auŕerako ere autu eta lenago zegoen ucala nai ez badute, auteskundietara jutea gogoz erabaki zuten. ¡Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕaren onerako izan bedi guzia!

EPAILE-ORDEA.—Igandean egin zan Epaile-ordea edo juez suplentea aututzeko auteskundea, eta Intxausti'taŕ Nikodema autu zan.

AUTESKUNDEAK.—Ilaren 23'an auteskundeak ditugula-ta zer esana ugari asi da. Bi alderdi, abeŕtzaleak eta alderdi gabeak batetik eta zarontzaleak bestetik izango dirala uste degu, eŕkaltzaleak ere ageŕtuko ote diran zuŕumuŕua egon aŕen. Au dala-ta betiko agintzak asi dira, Ursuan'go kamiñoa dala, bigaŕen osalari edo medikua data-ta abaŕ, baña gauza bidezkoa izango da guziontzat, guzak neuŕiz agindu eta neuŕiz zinistea, iñor atzipetu edo engañatu gabe ta iñor minberatu gabe, zintzo bakoitzak bere alderdia aldeztuaz.

DONOSTI'KO JAYAK.—Pozik jakin degu, Igaratz edo Pazkoa egunean asi-ta Gipuzko-Buru-Batza'k Donostian eratzen dituen jayaldi bikañen beŕi eta pozik geude talde edeŕa bertaratzeko.

ANTZEŔKIA.—Gure antzeslari taldea gogoz ari da "Abaroa eta Babesa" antzeŕki edeŕa ikasten eta usterik gutxien degunean, antzeŕki jai edeŕ bat emango digute.

ASTE DEUNA.—Gure zinesmen deuneko gertakizunik ikaragaŕienak gogoratzen ditugun Aste Deuna edo Aste Santua gaŕean degu eta oituta gauden ibildeun edeŕ ayek ez dakigu izango diran, baña elizkizun edeŕak izango ditugu eta kristau bezela, zintzo elizkizunetara jo beaŕ degu.

OTAŔA.

URRETXUA

Nastu ta labur

Ikurton deunak eta Doipuruan onespena artu ondoren il da Usabiaga'taŕ Joseba Mirena. Otoitz bat irakuŕte bere gogoaren alde.

—Izagiŕe'taŕ Andoni'ren emaztiak auŕ bat izan du, onik arkiturik ama-semiak. Zorionak.

—Buska'taŕ Jon Ugutz'en emaztiak ere aur bat izan du, ta ugutzatu dute Miren Andone euzkel izen poliŕak ezaŕiyaz. Zorionak.

—Martin deunan txadonan Gogo Jardunak ospatzen ari dira. Datoŕen igandian amatuko dira Jaunartze orokor batekin.

—Igaro dan igandian ertxadon aretuan izan zan antzerki jaya, ta antzeztu ziran "La princesa improvisada" erderaz eta "Uste diñat" euzkeraz. Tartian ertxadoneko gastetxuen abeŕbatzak abestu zuban "Kiri kiri ken".

Datoŕen igandian areto ortan bertan antzeztuko dira "Dinamiteros" erderaz eta "Gizon Bikañak" euzkeraz.

—Igaro dan igandian asko izan ziran Donostia'ra juan ziran "Txanton Piperri" ikustera. Baita ere entzuten degu askon abotik bizkorturik direla Berpizkunde egunean Donostia'ra juateko.

—Entzun degun-ez il onen 30'an "Euzko-Langile Elkarte'ak" antolatu-ta izango da itzaldi bikaña. Bertan izlari gorenenguak itz egingo dute, ta zer esanik eztago izpaŕ abek poztutzen gaitubela.

Uartzekua da Euzko-Langile'ak, azkaŕegi ezpadijuaz ere, poliki poliki auŕera dijuaztela. Oroitzen naiz Elkarte au irasteko lenengo batzaŕa egin zutenian, nola U. G. T.'kuak paŕe egiŕen zuten esanaz bezela.

—Oriñak egin dik asi baño lenago. Orain beŕiz Euzko-Langile'n zerbait entzuten dutenian, paŕe egitea ordez arpegiya ximurtzen zate. Ta oŕegatik poztuko lirake bat-edo-batzuk Euzko-Langile El kartea'n sortuko ba'litz eran arteko asaŕia, baña nik uste det, oran arte lez anayak bezela jaŕaŕuko dutela auŕerakuan ere Euzkadi'n onerako ta Jaun-Goikua'ren aintzarako.

AŔI GOTZON.

ZAMUDIO

ANTZEŔKI-JAYA. — Datoŕen igande aŕatsaldian eukiko dogu antzeŕki poliŕ eta abeŕkoya ikusteko zorija, eŕi onetako Batzokijan. Laŕabetzu'ko "Euzko-Batzoki,," ko antzelarijak antzestuko dabe "Negaŕez igaro zan atsua" deritxon antzeŕkija.

Gustijak ikusi al-dagijen, biŕiŕan emonga da. Lauretatik seiretara umiak eta emakumentzat eta seiretatik soŕtziretara, gixoneskuantzat.

Saŕerak oŕdubete auŕeragotik imiñiko dira salgei.

¡Abeŕtzalia! igande aŕatsaldia ondo igaro gura ba-dozu, eŕdu Zamudio'ko Euzko-Batzoki'ra.

¡AUŔERA!—Eŕi onetako abeŕtzalia'k lo ez-dagozala esan geinke. Eŕi eta albo-eŕi gustijen-be suba zabalduten dabe; batetik itzaldijak, bestetik antzeŕki-jayak eta onen antzeko gauza asko.

Ila onen 16'gn. egunian Donosti'ra juateko taŕant edeŕ bat aŕtu dabe eta entzun dogunetik jaŕlekurik geyenak salduta dagoz oraingandik.

Igazi'ko ila'ren 26'gn. egunian egin eben batzaŕ nagosija eta erabagi eben Batzokija'ren zabalkundia oŕila'ren 28'gn. egunian egiŕia. Onan dabiltz gogoŕ lanian nekatu barik.

Ekin ba abeŕtzaliak lanian adoretsu, ta Jel azia eraiten dogun euzkaldun gustijen biotzetan.

DERIO'RA.—Igaro dan igandin Derio'ko Euzko-Batzokijan ixan ziran itzaldi abeŕkoyatara abeŕtzale asko juan giñian eŕi onetatik. Onako itzaldijetan beti legez egi-andi eta biŕibilak entzun genduzan.

TXIMISTA BAT.

Léase EUZKADI

EUZKO
JEL-ASTEROKO IZPAŔIMGIJA
Larunbatetan agiri ixaten da
Euzkelduna: Abertzalia ba'zara, erosi ta irakurri biar dozu asteroko au.

IBAŔETA
Enparzuko gixon jantziak
Ametzaga'tar Urtado kalea 20 g,
JOSKINTZA SASTRERIA
TRINCHERAS y GABARDINAS
Hurtado de Amézaga, 20

Euzkotar umien aldez

Erraldoi berekoya (1)

Aŕatsalde gustietan, ikastetxetik ertentzetan, Eŕaldoyaren loratégira yolasten yoateko oitura zuten umeak.

Lorategi aundi, edeŕ bat zan, belaŕ bigun eta usai gozotzuaz eztalia.

Belaŕ artean, oŕ, emen, an izaŕak bezelako dizdizaridun loreak azten ziran, eta bertan zeuden amabi muxilka-ondoak, udabeŕian lore edeŕez eta udazkenian muxilka gozoz betetzen ziran.

Txoriak zugatz gañean abestu oi-zuten ¡ain gozoro! askotan umeak yolasa astuta txoriari entzuten egon oi ziran.

—¡Emen bai gerala zoriontsuak!—esan oi-zuten saŕitan umeak.

Egun batean Eŕaldoja etoŕi egin zan ordea.

Cornwallis'eko Eŕaldoya, bere lagun zaŕa ikertzen izan zan, eta berakin igaro zituan zazpi urte.

Saspi urtian esan zituzten nonbait alkaŕi esan beaŕ ziozkaten gauza gustiak, eta gure Eŕaldoyak atzera bere Gastelura biurtzeko asmoa artu zuan.

Eldu zanean umeak bere lorategian yolasean ikusi zituan.

—¿Zer dagizute emen?—galdeu zuan abots ikaragaŕiaz. Eta ume gustiak arin-arinka iges-egin zuten.

—Nere lorategia, neurea dá, orok yakin beaŕ zendukete, eta ez diot iñori berton yolastuten utziko—yaŕaiŕu zuan Eŕaldoyak trumoya bai'litzan.

Eta beriala, aŕizko orma aundi bategaz itxi zuan lorategia, ta idazkun aundi bat ipiñi zuan onelaxe SARTZEA ERAGOTZIA DAGO.

Oso berekoya zan Eŕaldoya.

Ume gaxoak ez zeukaten non yolasturik. Bide zabalean yolastea oldoztu zuten baña ¡ango autza! Gañera aŕi koskoŕ aundiak ere bai zeuden eta ez zitzayen atsegin izan an yolastea.

Saŕitan ikastetxetik ertentzian yoaten ziran Eŕaldoyaren loretegiko ormaraño eta bira osoa eman oi zioten ¡ezin saŕtu ordea! eta orma aundi ayen beste aldetik zegoan lorategi edeŕa oroitzen zuten.

—¡Len bai giñala zorionekoak!—esan oi-zuten.

Udabeŕia eldu zanean luŕalde guzia txoriz eta lorez bete zan. Baña Eŕaldoi berekoyaren Gaztelura ez zan udabeŕirik iritxi. Bere lorategian negua zan.

Umerik ez zebilelako txoriak ez zuten abestu nai, ta zugatzari astu zitzayoen loretzea.

Bein batean, lore batek belaŕ artetik burua atera zuan baña SARTZEA ERAGOTZIA DAGO ikusi zuanean umutzaz oroitu ta itundu egin zan, eta atzera luŕean saŕtu ta lo egin zuan beŕiro.

¡Eluŕa ta izotza bai bizi zirala an pozik!

—Udabeŕiari aztu egin bide ixan zayo lorategi onetara etortzea, ta edeŕki biziko gera emen urte osoan—esaten zuten.

Eluŕak bere izare zuriaz estali zuan belaŕa, ta izotzak zilaŕ margoa zugatzetan ipiñi zuan.

Geroago, eluŕak eta izotzak ipaŕ-aizeari deitu zirten zetoŕela eurakin aldi bat igarotzera.

Eta ipaŕ-aizea etoŕi zan, naŕuzko yantzian ondo batuta, eta egun osoan lorategian oŕoaka ibili zan, eta gañera Gazteluko ke-bideak yo ta bota zituan.

(Daŕaike.)

(1) Oscar Wilde'k egindakotik euzkeratua.

Gaxtedia auteskunde-aurrian

Zaloña

Igandero uriz-uri nabil, auteskundietan nola juan biaŕ ikusten, batasunari aurka egiñaz.

Uri askotara iritxi naiz: juan dan igandean, goizeko izaŕak alaituta, irten nitzan etxetik gurutze donea egiñaz, Jaungoikuari laguntza eskatuaz, egun artako eginketan bere-gogotik aldendua ibili ez nedin.

Donostirutz niñuala, nion nere buruari "Eguraldi edeŕa dek gaurkoa; ik daramatziken asmoak, ¿oin edeŕak ote diŕut?"

Zoro alena, ¡ori ere galdetu! ona ez ba ¿eguraldi onen egileari diotán maitasunak soŕtzen badizkik asmo oyek?

Ixil unea: oinkada bi eman ordurako Donostian: goiza da oraindik, seyak bakaŕik, nuan txadonara. Saŕtu naiz; orduantxe asia da abadia jaupa donea ematen. Jupa belaunikalurik entzun ondorian, irten naiz "Aitaren semearen"... egiñaz. Bultzia laisteŕ irtengo da; nuan bada geltokiruntz.

Sartu naiz bultzian: "entzupistak" elu "iauntxoak" bezela, eta irugaŕen mailako tarburin baten jarlekie gogoŕ batean exeri naiz.

Badoa bultzia, tximist bat bezela: gogoratu baño len Usurbil'en naiz. Gaste alai batzuek igo dira bultzira; nere aldamenean jaŕiaz, asi dira abeŕtzaletasunatzaz itz egiten.

Nire biotza poztu egin zan, abeŕtzaliak zirala ikusiaz. Ezin egon, berakin itz bi egin be, eta galdetu nitan. Adizkidiak, azketzi nere galderia. ¡Usurbil'kuak altzerazte...?

"Bai, galdetu nai dezuna, pozkidaz erantzungo dizugu-ta..."

Aneika eskeŕ. Esango al nauzue auteskundietan zaŕontzaliakin batuta zuazten ala ez?... ¿Batuta? ¡Ori bai ez! bakaŕik juan biaŕ degu bakaŕik, ez degu aŕotzaliakin ezertxo-ero nai"...

Zelan itzegiŕen dezue, ¿zeren gogoaz ala eŕiarenaz?

"Eŕiaren gogoa, guria bera da, baña ez. guziaz bakaŕik ari geraz"...

Ondo da: jaŕai zuek bide oŕi, eta egon gogoŕ batasunari auŕka...

"Zarauz'en gera, gu onera gatos, zu, ¿auŕera? Bai, auŕera nua; orain Zumaya'ra, gero Azpeitia'ra.

"Aguŕ bada, eta ondo juan"...

Aguŕ, aneika eskeŕ, eta nigan lagun bat badozue.

Ondo ekin diot egunari. Oldozten egon naiz oyen esanagar, eta ondo ulertu ondoren esan det. "Gauŕ gastien gogoa jakin beaŕ diot". Nun jaŕi bada begiak, gastiagan ez bada? berak badira abeŕiaren.

(Jaŕaituko du.)

Olerkari baten erijotza

Gure oleŕkarijak zoritxaŕak jo dauz. Erijotzaren begiko-edo dira ta egamin bijuŕtu yakuz. "Lizardi" zanaren gomutaz gengozala, Bedoña oleŕkari argija juan yaku. "Loramendi" zintzua, bere lekaide-jantzipian estalduta bixi zan oleŕkarija. Aren baŕuban ziran bulko zoragaŕijak il dira betiko.

Ernani'ko oleŕki-guduban sariŕuba ixan zan. "Maite-kantak" eritxon bere bertso edeŕai. Josu'ren edeŕak dei-egiŕen eutson eta aren deyari erantzunik, egaizka egin dau. Ezin ixi ludijon. Azkenengo "Zeruko Argia,,'n aren azkenengo oleŕkitxu bat irakuŕi dogu. Ona ementxe:

AOLKU ON

Arana'taŕ Jagoba'ri,
biotzez.

Ontan aiz eskuko, bestetan ez duk ik
ez zertan aritu, ez zer-ikusirik:
Itaz beste danai ez batxo jaramon,
aizen oŕi, orde, ate-eizean egon.
Lur-gizona laga, zerukoa jantzi
ta atzenik, Jaunagan, arnasa egotz!
Orixe duk, Santi,
egiteko sola;
besteak ez iri
txanpon bat axola

Intz-tantoarena: gau beltzean jayo,
iluna erantzi lorea jazteko...
Ñir-ñirka zai egon mimikoan teñe
ingurukoetan begirik tink bage.
Ta artean Iguzki zayolako eldu,
uŕintsu, ninian, iltzeko lekutu...
Ara or, ba, Santi,
biderik onena;
gogoan iduki
intz-tantoarena.

Edeŕtasuna abestuteko jayo zan a, erijotzak laztandu dau. Bedoña abearen oleŕkijak, gixon argijaren gogotik urtenak ziran. Andijagorik egingo eban, baña Goikuak eztau gura-ixan.

Betiko bakian bego.

BIOTZ-BEGIETAN
Libro de poesías con traducción castellana
Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Garibay 13 bis. 2.° - DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

T. S. H.

AUDICIONES INTERESANTES PARA HOY, 7 DE ABRIL

Conciertos sinfónicos

A las 6,25, Bucarest.—Sinfonía número 4 (Tchaikovsky).
A las 7,15, Varsovia y muchas europeas.—Programa polaco.
A las ocho, estaciones italianas del Norte.
A las ocho, Munich.—Bach, Beethoven, Mozart.

Conciertos vocales e instrumentales

A las 2,10, Huicen.—Música religiosa.
A las cuatro, Pittsburgh.
A las siete, Bruselas número 1. — Orquesta.
A la 7,30, Konigs Wusterhausen.— Popular.
A las 7,30, Poste parisién.—Orquesta de la estación.
A las 7,30, Stuttgart.—Orquesta Filarmónica.
A las ocho, Heilsberg.—Orquesta de la Opera.
A las 8,15, Torre Eiffel.—Orquesta.
A las 9,10, Huicen.—Orquesta popular.
A las 9,30, Stuttgart.—Danzas antiguas.

Operas y operetas

A las siete, Leipzig.—"La princesa gitana" (Kalman).
A las 8,10, Breslau. — "Abu Hassan" (Weber).

Música de cámara

A las 4,05, Praga.—Cuarteto Oudricek.
A las cinco, Strasburgo.—Con Lille.
A las 5,30, Bruselas número 2.—Cuartetos.
A las 7,45, Radio París.—"Septimino" (Beethoven).
A las 7,45, Roma. — Quinteto (Schumann).

Recital

A las 5,45, Bruselas número 1.—Piano (Mozart).